

LECELARIARI GALDEZKA

Iturginak urez gainezka utzi du sukaldea, baina 280 euro eskatzen ditu harraska konpontzeagatik



Harraskako isurbidea libratzeko, behin-behineko konponketaren bat egin zuen iturginak. Ez zidan ezertxo ere kobratu, baina ohartarazi zidan berriz ere libratu beharra izango zela, hodi zati bat aldatzea beste irtenbiderik ez omen zuelako matxurak. Halaxe izan zen: urte erdiren buruan, urik eramaten ez zuela geratu zen. Beste iturgin bati deitu eta aurrekoak erabili zuen metodo berarekin saiatu zen zenbait orduz, baina ez zuen ezer lortu eta beste zerbait saiaturako zuela erabaki zuen. Tresneria egokiarekin etorri zenean, ura sartu zuen presioan. Isurbiderik ez zuen libratu, eta, gainera, urez gainezka utzi zidan sukaldea. Gure aita ere han zen, eta iturginari esan zion berriz ere lehengo modura saiatzeko, zirga erabiliz, eta bigarren aldian balio izan zuen. Baina arazoa gero etorri da: iturginak 280 euro eskatzen dizkit, eta ez dit bidaltzen ordainagiririk; horren ordez, haren abokatuaren gutuna iritsi zait, ni estutu nahian hiru egunen buruan ordain dezadan. Iturginak ez zidan eman aurrekonturik. Jo ote nezake bide penaletik?

Kontratu zibilak ez betetzeak ez du esan nahi —ez beti, behintzat— iruzur delitua gertatu denik. Zuri dagokizunez, arau-hauste administratiboak gertatuko ziren, agian, eta zibilak ere bai, baina ez penalak. Abokatu bati galde diezaiokezu, edo administrazioak kontsumo gaiak aztertzeko jartzen dituen bideetara jo dezakezu, edo/eta auzitegi zibiletara. Zu Errioxakoa zara, eta Errioxan, hauxe dio 24/1996 Dekretuak, maiatzaren 3koak, Kontsumitzaileen Etxean Zerbitzu Profesionalak Ematen dituztenen Jardunari buruzkoak: Administrazioak zigorra ezar diezaioke aurrekonturik ematen ez duenari. Kontsumitzaileak ere badu aukera dendara joan eta erreklamazio orria eskatzeko, eta han salatu dezake aurrekonturik ez diotela eman, ordu gehiegi pasatu dituela konponketa lanetan, arazoak sortu direla eta ordainagiririk ez diotela eman nahi. Kontsumo Arbitrajearen aukera ere badago; borondatezkoa da eta doakoa. Abokatuaren gutunari erantzuteko, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoaren bitartez egin dezakezu, eta zure desadostasuna azaldu, iturginak lana ez duelako behar bezala egin eta sukaldea urez gainezka utzi dizulako. Egindako lan bakoitzagatik zenbat kobratuko duen argitzeko ere eska diezaiokezu. Auzitara joan beharra izango bazenu, aditu baten txostena eskatu beharko zenuke, hark esan dezan iturginak metodo egokiak erabili ote dituen eta erabili duen denbora ere zentzuzkoa izan ote den.

Eraikinaren beheko solairuan dauden saltokiek beren solairuko fatxadari dagozkion gastuak soilik ordaindu behar dituzte



Etxejabeen elkartearen erabaki genuen beheko solairuan saltokiren bat dugunok gure solairuko fatxadari dagozkion gastuak ordainduko ditugula, eta beste fatxada guztien gastuak, gainerako etxejabeek ordainduko dituztela. Duela gutxi lotu ditugu fatxada berritzeko lanak, eta horiek hasita zeudela, ezohiko batzarra egin dugu etxejabeek, eta teilatua ere konpontzea erabaki dugu, aldamiok behin jarrita daudenez, horri probetxu ateratzeko. Aurrekontua, beraz, handitu egin da, eta hortik sortu zaizkigu desadostasunak. Saltokiek zer ordaindu behar dute, teilatuko lanei soilik dagokien zatia, edo aldamiolari eta lanen zuzendaritzari dagozkionak ere ordaindu behar dituzte?

Jabetza Horizontalaren Legeak esaten du guztiak erabiltzen duten elementu bat berritzeko eta mantentzeko egin behar diren lanak (fatxada berritzea, adibidez) etxejabe guztien artean ordaintzekoak direla, eta bakoitzak dagokion portzentajea jarri behar duela. Beheko solairuko saltokien jabeak ere hor sartzen dira. Zuek, ordea, erabaki zenuten gastuak beste modu batera banatzea, eta erabaki horrek badu balioa lege ikuspuntutik, eta horri heldu beharko diozue interes gatazka hau konpontzeko, edo, bestela, beste erabaki bat hartu beharko duzue, aho batez berriz ere. Teilatuari dagozkion gastuak soilik ordaindu behar lituzkete saltokiek, hala erabaki zenutelako batzarrean. Eta ongi erabakia dago hori, guztiak eginen baitie mesede, ez soilik saltokien jabeak. Zuen arteko jarrerak hurbiltzeko, beste batzar batera dei ditzakezue etxejabe guztiak, eta bere garaian zer erabaki zenuten ikusi eta hitzez hitz esaten duena bete. Ez bazenute lortuko guztiak ados jartzea, bitartekari edo arbitraje zerbitzu batera jo dezakezue (zuen erkidegoko etxebizitza zerbitzu publikoak izango du).

AHOLKULARITZA

Idatzi eta zure arazoa konpontzeko bide egokiena zein izan daitekeen aholkatuko dizugu

- > Auzi bakoitzaren aukerak aztertu ondoren, CONSUMER EROSKIren zerbitzu juridikoak izango dira erantzuna ematearen arduradunak, zure kasuan jarduera egokiena zein izan litekeen esango dizutenak. Orientabidea baina ez da. Kontuan izan, gai juridikoak ez direla errazak, kasu bakoitza baldintzatzen duten hainbat egoera daudela eta horrek sententzian eragina izaten duela.
- > Bidali arazoa azaltzen duen gutuna. Eta berarekin batera auziaren inguruko dokumentazioaren fotokopiak. Eskura dituzunak.
- > Orrialdeotan argitaratzen duguna izango da auziari emango zaion erantzun bakarra.



BERMEA. IBILGAILUA KONPONTZEKO EPEETAN ATZERATU

Ekoizleari kalte-ordaina eskatu dio, hiru hilabete baino gehiago behar izan baititu pieza bat bidaltzeko

Kontsumitzaile batek 900 euroko kalte-ordaina eskatu zion auto konpontzaileei eta enpresa ekoizleari, kalte-galerengatik, hiru hilabete eta erdi atzeratu baitziren autoa konpontzeko (garantia aldiaren zegoen autoa). Lehenago, Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegoan egin zuen erreklamazioa, eta han adierazi zuen auto bakarra zeukala, eta hara eta hona ibili beharra zuenez, beste ibilgailu bat alokatu behar izan zuela. Epaketan, frogatuzat eman zuten hiru hilabete baino gehiago atzeratu zirela konponketa lanak, ekoizleek ez zutelako bidaltzen pieza bat. Horregatik, Madrilgo Probintzia Auzitegiak, 2007ko apirilaren 27ko sententzian, 479 euroko kalte-ordaina ematera zigortu zuen ekoizlea, auto alokairuak eragindako gastuei aurre egiteko, eta beste 420 euroko zigorra ezarri zion sortu zituen eragozpenengatik -autobusa eta ibilgailu alokatuak luzaz erabili behar izatea- eta galarazi zioten denbora guztiagatik, garajera joanez, erreklamazioak eginez eta auto alokatua hartu eta utziz (kalte moralizat hartzeko adinakoa izan zela ebatzi zuen).



ASPALDI ERRENTAN EMANDAKO ETXEA. BERRITZE LANAK

Jabeak ez du egin nahi berritze lanak, etxeak balio duenaren erdia gastatu behar omen duelako

40 urte errentan egon ondoren, berritze lanak egin zitzaala eskatu zion maizterrak jabe-aholkatzaileari, gutxieneko baldintza batzuetan bizi ahal izan zedin: komunak zisterna bat behar zuen, harraska aldatu beharra zegoen eta sukaldeko lurrak berrintzeko premia zeukan. Alokaitzaileak uko egin zion eskabideari, esanez etxeak balio zuenaren erdia baino gehiago gastatu beharko zuela hura konpontzen. Hala izanez gero, 1964ko Hiri Alokairuen Legeari jarraiki, hondamendi ekonomikoan egongo zatekeen etxea, eta kontratua indargabetu ahal izango zukeen. Hori egiaztatzeke, txostena eskatu zion lege aditu bati, eta hark 78.641 euroko balioa eman zion etxeari. Etxea txukun jartzeko eta maizterrak galdegin zituenak egiteko, ordea, 20.452 euro behar ziren —inondik ere ez, beraz, etxeak balio zuenaren erdia—. Hori ikusita, Asturiasko Probintzia Auzitegiak bertan behera utzi zituen jabearen asmoak, eta ezin izan zuen kontratua indargabetu (2007ko maiatzaren 2ko sententzia da).



ZERBITZUA EMATERAKOAN SORTU DITUEN KALTEEN ERANTZUKIZUN ZIBILA

Garbiketa tunel batera autoa eraman eta kaltea egin diote atzeko aldean

Gidari batek salaketa jarri zuen zerbitzugune baten aurka, autoak garbitzeko tunel bateko arabolak kalteak sortu zitzielako atzeko kolpe-leungailuan. Epaketa irabazi zuen, eta epaileak 833 euroko zigorra ezarri zion salatuari, baina baldintza bat ere jarri zion salatzaileri dirua jasotzeko: konponketa lanen ordainagiria aurkeztu beharko zuen. Salatuak gora jo zuen epaiaren aurka, haren ustez, kolpe-leungailua nahiko nasai baitzegoen garbigailuan sartu aurretik, eta horregatik kaltetu zen. Baina bezeroak berriz irabazi zuen. Castelloko Auzitegiak 1/2007 Errege Legegintza Dekretua hartu zuen aintzat, azaroaren 16koa, eta han esaten da kontsumitzaileak eskubidea duela kalte-ordaina jasotzeko zerbitzuak erabiltzerakoan jasan dituen kalteengatik, salbu eta ez bada frogatzen argi eta garbi bera dela kaltearen erantzule (2007ko abenduaren 14koa da sententzia). Auzitegiaren irudiko, ez zen frogatu kontsumitzailea zela erantzule, eta, gainera, ez zuen konponketa lanen ordainagiririk erakutsi behar izan, ez baita bidezkoa nork bere dirua aurreratu behar izatea konponketa lanak egiteko.

EPAIAK

Antzeko auzietan erabakiak eta epaiak desberdinak izan daitezke

> Gure atal honetan auzitegiek emandako epaiak jasotzen ditugu. Edukiari begiratzen diogu eta era guztietako zerbitzu eta produktuen kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat erabilgarri izan daitezkeen aukeratu. Baina ezin da ahaztu, antzeko gertaeren aurrean erabakiak desberdinak izan daitezkeela. Kontuan izan behar dira, besteak beste, eskura dauden frogak, alderdi bakoitzaren egoera eta epaiak ematen duen tribunala.